

BILBAO KIROLAK - O.A.L. ERAKUNDEAREN
2018KO AURREKONTUEN KARGURA EMANGO
DIREN DIRU-LAGUNTZAK JASOTZEKO DEIALDIA
(5. LERROA)

5. LERROA: BILBON KIROL MOLDATUA GARATZEKO DIRU-LAGUNTZA

Diru-laguntzen lerro honetara bideratutako diru-kopurua: 23.100 €

1. XEDEA.

Laguntza ekonomikoen jasotzaileak:

1. Aniztasun funtzionala duten pertsonen osaturiko ekipo eta klubak.
2. Aniztasun funtzionala duten bakarkako kirolariak
3. Euren kirol programak, oso-osorik, aniztasun funtzionala duten pertsonen jarduera fisikoa sustatzera bideratzen dituzten pertsona juridikoak.
4. Euren kirol jarduerak oso-osorik, aniztasun funtzionala duten pertsonen jarduera fisikoa sustatzera bideratzen dituzten pertsona juridikoak.

2. DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA.

Aurreko idatz-zatian aipatutako programa diruz laguntzeko, diru-kopuru hau bideratuko da: **23.100 euro**.

3. ONURADUNAK.

1. Aniztasun funtzionala duten pertsonen osaturiko ekipo eta klubak (7.000 €) eta:

- a) Eusko Jaurlaritzaren Kirol Erakundearen eta Federazioen Erregistroan inskribatuta daudenak.
- b) Bilboko udal-barrutian egoitza soziala dutenak.
- c) Hurrengo baldintzak betetzen dituztenak:
 1. 2004 eta 2005. urteetan jaiotako emakumezko jokalaria dituzten taldeak. Esleipen-irizpidea: 3 puntu jokalaria bakoitzeko.
 2. 2002 eta 2003. urteetan jaiotako emakumezko jokalaria dituzten taldeak. Esleipen-irizpidea: 5 puntu jokalaria bakoitzeko.
 3. 1999, 2000 eta 2001. urteetan jaiotako emakumezko jokalaria dituzten taldeak. Esleipen-irizpidea: 6 puntu jokalaria bakoitzeko.
 4. 1999. urtea baino lehen jaiotako jokalaria dituzten taldeak: 6 puntu.

d) Federazio edo eskolako lehiaketaren batean inskribatuta daudenak.

2. **Aniztasun funtzionala duten banakako kirolariak**, lehiaketa ofizialen batean izena eman dutenak: Horien kirol ibilbidea sustatzeko laguntzak. 4.000 €.
3. Euren **kirol programak**, oso-osorik, aniztasun funtzionala duten pertsonen jarduera fisikoa sustatzera bideratzen dituzten pertsona juridikoak. 6.100 €.

4. Euren **kirol jarduerak**, oso-osorik, aniztasun funtzionala duten pertsonen jarduera fisikoa sustatzera bideratzen dituzten pertsona juridikoak. 6.000 €.

Diru-laguntza honetatik kanpo utziko dira eskola-kontseiluak eta ikasleen gurasoen elkarteak, horien eskaerak udal-hezkuntzaren esparrutik bideratuko baitira.

Diru-laguntza honetatik kanpo utziko dira Bilboko Udaleko Espazio Publikoko Bulegoaren baimena ez daukaten jarduerak.

Diru-laguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galarazten dion administrazio-zehapena edo zehapen penala jaso duen pertsona juridikoa eta, orobat, lege-debekuren bat dela medio horretarako ezgaituta dagoen pertsona juridikoa ezin izango da deialdi honetara aurkeztu, zehapenak finkatutako denboraldian. Hemen, barne hartuko dira sexuagatiko bereizkeriaren ondorio diren zehapenak, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak Azken Xedapenetatik Seigarrenean xedatu duenarekin bat etorrira.

Lerro bakoitzeko eskaerak ebatzi ostean, aurrekontu-kreditua agortu ez bada, hala badagokio, beste lerro batzuetako eskaerei erantzuteko erabili ahal izango da eskuragarri dagoen zenbatekoa.

4. ESKAERAK AURKEZTEA.

Deialdiari buruzko informazio guztia Bilbao Kirolak erakundearen webgunean egongo da eskuragarri (<http://www.bilbaokirolak.com/es/que-es-bilbao-kirolak/subvenciones>).

Laguntza hauek eskatu nahi dituzten pertsonak ondoko agiriak aurkeztu beharko dituzte Bilbao Kirolak erakundearen Erregistroan – hau da, Bilboko Nafarroa kaleko 5. zenbakiko 4. solairuan dagoen izen bereko bulegoan –, **ahal dela**, posta elektronikoz, promocion@kirolak.bilbao.eus helbide elektronikoak edo 30/92 Legearen 38.4 artikulua ezartzen duen eran:

Hau da aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Kasu guztietan:

1. Diru-laguntzaren eskaera-orria, eredu ofizialaren arabera behar bezala beteta (1. ERANSKINA).
2. Nortasun-agiriaren fotokopia.

1 Onuradunentzat:

1. Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria, eskumena duen zerga-arloko administrazioak uneko urtean egindakoa.
2. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela edo erakundeak bere kargura langilerik ez duela egiaztatzen duen agiria, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak uneko urtean egindakoa.

3. Eusko Jaurlaritzaren Kirol Erakundearen eta Federazioen Erregistroan egindako inskripzioaren egiaztagiriaren kopia.
4. Egoitza soziala Bilboko udal-barrutian dagoela egiaztatzen duen agiriaren kopia.
5. Uneko denboraldian federatuta dauden kirolarien zerrendaren ziurtagiria: kirolariak kategoriaren arabera egongo dira sailkatuta, eta dagokion federazioak eman beharko du zerrenda hori. 7. ataleko (Balorazio irizpideak) baldintzak betetzen dituzten kirolari federatuak soilik jasotzen dituen dokumentua.

2 Onuradunentzat:

1. Bilbon erroldatuta dagoela frogatzen duen agiria.
2. Desgaitasuna egiaztatzen duen ziurtagiria.
3. Lehiaketa ofizialen batean inskribatu dela egiaztatzen duen agiria.

3 eta 4 Onuradunentzat:

1. Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria, eskumena duen zerga-arloko administrazioak uneko urtean egindakoa.
2. Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela edo erakundeak bere kargura langilerik ez duela egiaztatzen duen agiria, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrek uneko urtean egindakoa.

Diru-laguntzen eskaerek ezin izango dute inola ere gainditu eskaini ahal den gehienezko zenbatekoa.

5. ESKAERA-EPEA.

Eskaerak aurkezteko epea **20 egun naturalekoa izango da, iragarki hau BAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.**

6. AURKEZTUTAKO ESKAERAREN AKATSAK ZUZENTZEA.

Eskaerak jaso ondoren, horiek behar bezala bete ez badira edo behar diren agiriekin batera aurkeztu ez badira, Bilbao Kirolak erakundeak eskaera aurkeztu duen pertsona fisikoari eskatuko dio akatsa zuzen dezan edo beharrezkoak diren agiriak aurkez ditzan, eskakizun horren agiria jaso eta hurrengo hamar egun baliiodunen barruan. Era berean, aditzera emango dio, epe horretan akatsa zuzentzen ez badu edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezten ez baditu, eskaera bertan behera utzi duela joko dela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak -4/1999 Legeak aldatutakoak- 71.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki, eta, betiere, 30/1992 Legeak 42. artikuluan aipatutako eran ebazpena eman ondoren.

7. BALORAZIOA EGITEKO IRIZPIDEAK.

1 Onuradunak. (Desgaitasun funtzionala duten pertsonen osatutako ekipoak dituzten klubak).

1. 2004 eta 2005. urteetan jaiotako jokalaria dituzten taldeak. Esleipen-irizpidea: 3 puntu jokalaria bakoitzeko.
2. 2002 eta 2003. urteetan jaiotako jokalaria dituzten taldeak. Esleipen-irizpidea: 5 puntu jokalaria bakoitzeko.
3. 1999, 2000 eta 2001. urteetan jaiotako jokalaria dituzten taldeak. Esleipen-irizpidea: 6 puntu jokalaria bakoitzeko.
4. 1999. urtea baino lehen jaiotako emakumezko jokalaria dituzten taldeak: 6 puntu

2 Onuradunak: Atal horretako guztizko zenbatekoa aurkeztutako eskaera guztien artean banatuko da.

3. eta 4. motetako onuradunak (Bilboko udal mugartean aniztasun funtzionala duten pertsonentzako **kirol programak** eta/edo ekitaldiak gauzatzen dituzten pertsona juridikoak eta Bilboko udal mugartean aniztasun funtzionala duten pertsonentzako kirola sustatzea helburu duen **kirol ekitaldi** garrantzitsu bat antolatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak).

Honako proiektu hauek ez dira onartuko:

1. Bilbao Kirolak erakundeak dituen ildo estrategikoekin bat ez datozen proiektuak
2. Koherenteak ez diren proiektuak, alegia, eskatutako jardueraren eta finantzatutako helburuen artean zuzeneko harremanik ez dutenak.
3. Teknikoki edo ekonomikoki bideragarriak ez diren proiektuak, hau da, lortu nahi diren helburuak lortuko dituztela behar bezala bermatzen ez dutenak.

Onartzen diren eskaera guztiei ondoko irizpideak aplikatuko zaizkie, eta gehienez 100 puntu jaso ahal izango dituzte:

1. Jardueraren eragina (gehienez 60 puntu): Bilbao Kirolak erakundearen ildo estrategikoekin duen bateragarritasuna, parte-hartzaileen kopurua, ikusleen kopurua, berrikuntza, jardueraren iraupena, programa zein talderi zuzentzen zaion, programa sendotzea (betiere, jarduera lehenago garatu baldin bada), beste pertsona fisikoekiko eta juridikoekiko lankidetzak, Bilbao Kirolak erakundearen harpidedunentzako deskontuak, opariak edo doako jarduerak, komunikabideetan izandako oihartzuna, parte-hartzaileen kirol maila, probaren maila, pertsona ezinduen parte-hartzea.

2. Aurrekontuaren egokitzapena (gehienez 10 puntu): programak duen interesaren eta aurkeztu den aurrekontuaren artean dagoen harremana, bestelako finantziatio-iturriak lortzea, eskatzaileak bereak diren giza baliabideak eta baliabide materialak jartzea.
3. Jardueraren diseinuak duen kalitatea (gehienez 10 puntu): lortu nahi ziren emaitzak sartzeko, helburuak betetzeko mailaren eta ebaluazioaren adierazleak, barneko komunikazioa, teknologia berrien erabilera, programa betearaztea sustatzen duten arrazoiak.
4. Jardueran euskara eta kultura artekotasuna bezalako zeharkako gaiak duten tratamendua (gehienez 10 puntu): euskaraz osorik garatuko diren jarduerak, sexista ez den hizkera erabiltzea, eta kultura-arteko ikuspegia kontuan hartzea.
5. Eskaera egiten duen pertsonaren balorazioa (gehienez 10 puntu): egiaztatutako esperientzia, programa garatzeko duen ahalmena, parte-hartzea bultzatzen duen egitura, bazkideak, sarean parte hartzea, antzinakotasuna.

8. DIRU-LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA.

1. motako onuradunak. Diru-laguntzak hainbanaketa-erregimenaren bidez emango dira.

Diru-laguntzara bideratzen den diru-kopurua eskaera aurkeztzen duten kirol erakundeen artean banatuko da, eskuratzen dituzten puntuaren arabera. Kirol erakunde bakoitzak jasoko duen dirua kalkulatzeko, erakunde horrek lortutako puntuak biderkatuko dira puntu bakoitzari esleitu zaion balio ekonomikoaz.

2. motako onuradunak. Diru-laguntzak hainbanaketa-erregimenaren bidez emango dira.

Diru-laguntzara bideratzen den diru-kopurua eskaera aurkeztzen duten eta baldintzak betetzen dituzten pertsonen artean banatuko da.

Aurrekontu-kreditua banatzea bermatzen duen eskari-kopuru nahikorik ez badago, eskuragarri dagoen zenbatekoa diru-laguntza lerro honen edota beste lerro batzuen ataletara bideratuko da.

4. eta 5. motetako onuradunak. Diru-laguntzak emateko, aurkezturiko eskabideak erkatuko dira; aurreko puntuan zehaztutako balioztapen-irizpideen arabera, eskabideen arteko lehentasunak ezarriko dira; eta irizpideok aplikatuz balioztapenik altuena lortu duten eskabideei esleituko zaie laguntza, oinarri hauetan (lehia konkurrentzia) zehaztutako aurrekontu-zuzkiduraren zenbatekoa inola ere gainditu gabe.

Emango den diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko, programa bakoitzeko lortu den puntuazioaren arabera ehuneko aplikatuko da, honako taularen arabera:

100 puntu. Eskatutako zenbatekoaren %100.

90 puntu. Eskatutako zenbatekoaren %90.

80 puntu. Eskatutako zenbatekoaren %80.

Eta horrela gainerakoetan ere, puntuazioaren eta diruz lagundu beharreko ehunekoaren arteko korrelazioa mantenduz.

Laguntzak puntuazioaren arabera emango dira, kontuan izanik, alde batetik, aurrekontuan sartutako zenbatekoa eta, bestetik, eskatutako zenbatekoa.

Aurrekontuan jasotako kopuru ekonomikoa nahikoa ez balitz lortutako puntuazioaren arabera eskabideei gehienezko zenbatekoan erantzuteko, hainbanaketa egingo da.

9. EBAZPENA.

1. Bilbao Kirolak erakundeko buruak emango du eskaerei buruzko ebazpena, onetsitako diru-laguntza aintzat hartuta, eta dagozkien agiriekin batera jasotako eskaerak kontuan izanik.
1. Kide anitzeko organo batek diru-laguntza emateko proposamena egingo dio Bilbao Kirolak erakundeko buruari, organo instrukzio-egile baten bidez. Bilbao Kirolak S.A.n kirol alorrean eskumena duen Sailaren zuzendari kargua betetzen duen pertsona. Bilbao Kirolak TEAren Gerentziak eta Bilbao Kirolak S.A.ren Kirol Ataleko Zuzendaritza duen pertsonak osatuko dute organo kolegiatua.
2. Ebazpena, gehienez, sei hilabeteko epean eman beharko da, espedientea izapidetzeko behar diren agiri guztiak aurkezten diren egunetik zenbatzen hasita. Aurkeztutako eskaera guztiei buruz esanbidezko ebazpena emateko dagoen betebeharrari kalterik egin gabe, ebazpena emateko eta jakinarazpena egiteko epea amaitzen bada eta, hala ere, ebazpena esanbidez eman ez bada, eskaera administrazioaren isiltasunaren bidez ezetsi dela joko da.
3. Erakunde berberak ezingo du 3 diru-laguntza baino gehiago jaso.
4. Urtea bukatu baino lehen, Bilbao kirolak erakundeak emandako diru-laguntza guztiak argitaratuko ditu hala *Bizkaiko Aldizkari Ofizialean* nola webgunean.

10. JAKINARAZPENA.

Jakinarazpena azaroaren 26ko 30/1992 Legeak -urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldarazi zuenak- 58. eta 59. artikuluetan adierazitako moduan egin beharko da.

11. DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA ETA JUSTIFIKAZIOA.

1. Emandako diru-laguntza ordainketa bakar batean egingo da, finantzatuko den kopuruaren berri ematen duen jakinarazpena bidali ondoren. Diru-laguntza banku-transferentzia bidez ordainduko da, eskaeran agertzen den pertsonaren edo erakundearen kontu zenbakian.
2. Diru-laguntza ordainketa aurreratu bidez ordaintzen bada, justifikazioaren aurretik eta emandako diru-laguntzaren zenbateko osoagatik, inolako bermerik eskatu gabe egingo da, diru-laguntzari lotutako ekintzak gauzatu ahal izateko beharrezko finantzaketa gisa.
3. Diru-laguntza jaso behar duen pertsonak edo erakundeak justifikatzeko epea gainditu eta gero ere, justifikatu gabeko diru-laguntzaren bat izango balu, diru-laguntzari dagokion dirua ez da emango. Diru-laguntza jaso behar duen pertsona edo erakundeari noizbait diru-laguntzaren bat bueltatu behar duela agindu bazaio, eta horrek ez baldin badu itzulketa egin, ez zaio diru-laguntzarik emango.
4. Diruz laguntzeko aurkeztutako aurrekontuaren %100 justifikatu beharko da, eta ez soilik Bilbao Kirolak erakundeak emandako dirua, 38/2003 Legeak ezartzen duen moduan eta Ordenantza orokorra, Bilboko udalak eta udalaren zuzenbide publikoko erakunde eta entitateek deialdi bidezko diru laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen. (2016-07-20ko BAOn 138. Zenbakia argitaratua)
5. Diruz lagundutako jarduera bukatu ostean, programa bakoitzean egindako gastuaren justifikazio-kontua aurkeztu beharko du pertsona edo erakunde onuradunak, honakoak aurkeztuta:
 - a) Diruz lagundutako programaren txostena.
 - b) Programaren informazioko eta publizitateko material guztien jatorrizko ale bana.
 - c) Programako jardueren argazkiak, euskarri elektronikoan.
 - d) Programako sarreren eta gastuen balantze ekonomikoa.
 - e) Gutxienez, programan aurreikusitako epean diruz lagundutako jardueraren aurrekontuaren baliokidea den gastua egin dela egiaztatzen duten agiriak. Jatorrizko agiriak eta haien fotokopiak aurkeztu beharko dira, era horretan, konpultsatu ahal izateko.

Edonola ere, gastuen justifikazioari buruzko dokumentuetan datu hauek agertu beharko dira:

1. Onuradunaren identifikazioa.

2. Gastuaren xedearen deskribapena, diruz lagundutako jardueraren betearazpenarekin zuzenean erlazionatuta egon beharko dena.
5. Agiri horiek aurkezteko epea hiru hilabetekoa izango da, diru-laguntza eman dela dioen jakinarazpena jasotzen den egunetik zenbatzen hasita, ordurako programa buruturik baldin badago. Aitzitik, jakinarazpena jasotzen denean programa artean amaituta ez badago, agiriak aurkezteko epea hiru hilabetekoa izango da, programa bukatzen den egunetik zenbatzen hasita. Agiriak epe hauetan ez badira aurkezten, ez aurkeztutzat joko dira.
6. Dokumentazioa jaso ondoren, horiek behar bezala bete ez badira edo behar diren agiriekin batera aurkeztu ez badira, Bilbao Kirolak erakundeak eskaera aurkeztu duen pertsona fisikoari eskatuko dio akatsa zuzen dezan edo beharrezkoak diren agiriak aurkez ditzan, eskakizun horren agiria jaso eta hurrengo hamar egun baldiodunen barruan. Era berean, aditzera emango dio, epe horretan akatsa zuzentzen ez badu edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezten ez baditu, eskaera bertan behera utzi duela joko dela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak -4/1999 Legeak aldatutakoak- 71.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki, eta, betiere, 30/1992 Legeak 42. artikuluan aipatutako eran ebazpena eman ondoren.
7. Diru-laguntzak jasotzeko, justifikazioaz gain, onuradunaren betebeharra izango da: helburua betetzea, proiektua gauzatzea, jarduera burutzea edota diru-laguntza jasotzea oinarritzen duen jokabidez jardutea. Era berean, aldaketaren bat gertatuz gero, horren berri aurretiaz eman beharko zaio Bilbao Kirolak erakundeari.
8. Justifikatzeko beharra ez betetzeak edo osatu gabeko justifikazioak jasotako dirua itzuli eta berandutze-interesa ordaindu behar izatea ekarriko du, Diru-laguntzen Lege Orokorraren 37. artikuluan 1. atalean ezarritako baldintzetan.

12. DIRU-LAGUNTZAK ALDATZEA.

Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetako bat aldatzen bada, baina hala ere diru-laguntzaren helburua eta xedea bete direla jotzen bada, orduan, diru-laguntza eman duen ebazpena ere aldatu ahal izango da.

13. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN JARRAIPENA.

Bilbao Kirolak erakundeak egoki iruditzen zaizkion egiaztapenak egin ahal izango ditu emandako diru-laguntzaren inguruan, eta eskura izango ditu diruz lagundutako jarduerari buruzko agiri guztiak.

14. DATUEN BABESA.

1. Izaera pertsonaleko datuak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoaren arabera, interesdunak emandako datuak soilik erabili ahal izango dira dena delako prozeduran edo jardueran finkatutako helburuak betetzeko.

2. Hala, bada, datu horiek ezin izango dira inola ere tratatu eta ezin izango zaizkie hirugarren batzuei laga, tartean dagoen pertsonak horretarako berariazko baimenik ematen ez badu, ez eta izaera pertsonaleko datuak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak 6.2 eta 11.2 artikuluetan finkatutako kasuetan ere (BOE, 298. zenbakia, 1999ko abenduaren 14a).
3. Aipatutako 15/1999 Lege Organiko horrek xedatutakoa betez, datuak lagatzen dituenak edozein unetan erabili ahal izango ditu datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta aurkaratzeko eskubideak, arau bidez zehazten den eran.

15. DIRU-LAGUNTZA IRAGARTZEA.

1. Jarduerak gauzaten diren leketan publizitatea badago, Bilbao Kirolak erakundeak publizitate espazioaren portzentaje bat izango du, betiere, eskatutako diru-laguntzaren kopuruaren portzentajearen arabera.
2. Bilbao Kirolak erakundeak eskatutako diru-laguntzaren %75 baino gehiago finantzatzen badu, "Bilbao Kirolak" izena gehitu ahal izango dio jardueraren izenari.
3. Bilbao Kirolak erakundearen logotipoa agertzen den material orotan, "babesle nagusia" hitzak agertu beharko dira, diru-laguntzak eskatzeko aurkeztutako aurrekontuan babesle nagusia dela adierazten denean.
4. Diru-laguntza jasotzen duten pertsona juridiko guztiek finantziario horren berri eman beharko dute jendaurrean, eta Bilbao Kirolak erakundearen logotipoa sartu beharko dute diruz lagundutako programak sorrarazten dituen informazioko eta publizitateko material inprimatuetan, artxibo elektronikoetan eta ikus-entzunezkoetan.
5. Horretarako, Bilbao Kirolak erakundeak bere logotipoa emango die berau eskatzen duten pertsona juridikoei.
6. Programaren prentsaurrekoaren eguna, ordua eta lekua idatziz jakinaraziko dira. Gutunarekin batera, Bilbao Kirolak erakundearen Administrazio Batzordearen presidenteari jardueran parte hartzeko gonbidapena bidaliko zaio.
7. Aurreko atalen bat betetzen ez bada, diru-laguntzaren %100 itzultzeko aukera egon daiteke.
8. Era berean, hizkuntza ofizial biak, euskara eta gaztelania, erabili beharko dira programaren publizitate-elementu gisa sortzen diren kartel, testu eta dokumentuetan. Modu berean, diruz lagundutako jarduerari lotutako sustapen-ekintza publikoak eta megafoniaz jakinarazten diren mezuak elebidunak izango dira, eta euskara eta gaztelania erabiliko dira, hurrenkera horretan.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- a) Diru-laguntzaren eskaera-orria, eredu ofizialaren arabera behar bezala beteta (1. ERANSKINA).
- b) Eusko Jaurlaritzaren Kirol Erakundearen eta Federazioen Erregistroan egindako inskripzioaren egiaztagiriaren kopia (1 Onuradunak)
- c) Eskaera aurkezten duen pertsona fisikoaren IFKren fotokopia
- d) Diru-laguntza eskatzen duen pertsona juridikoaren IFKren fotokopia.
- e) Urteko denboraldian federatua dauden kirolarien zerrendaren ziurtagiria; kirolariak kategoriaren arabera egongo dira sailkatuta, eta dagokion federazioak eman behar du zerrenda hori (2. ERANSKINA). Balorazio irizpideak ataleko baldintzak betetzen dituzten kirolari federatuak edo eskola-kirolean inskribatutakoak soilik jasotzen dituen dokumentua. (1 Onuradunak)
- f) Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen agiria, eskumena duen zerga-arloko administrazioak uneko urtean egindakoa.
- g) Gizarte Segurantzako betebeharrak ordainduta daudela egiaztatzen duen agiria, edo erakundeak bere kargura langilerik ez duela egiaztatzen duen agiria, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra uneko urtean egindakoa.
- h) Bilbon erroldatuta dagoela frogatzen duen agiria. Desgaitasuna egiaztatzen duen agiria. Lehiaketa ofizialen batean inskribatu dela egiaztatzen duen agiria. (2 Onuradunak).

1. ERANSKINA.**DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEA. 5. Ierroa.**

TALDEA BAKARKAKO KIROLARIA PROGRAMA EKITALDIA

ESKABIDEA AURKEZTEN DUEN PERTSONA FISIKOA.**Izena eta bi abizenak:****NAN:****Posta-helbidea:****Herria:****Posta-kodea:****Sakelako telefonoa:****Telefonoa:****Helbide elektronikoa:****Webgunea:****Bloga:****ORDEZKATZEN DUEN PERTSONA JURIDIKOA.****Izena:****IFK:****Posta-helbidea:****Herria:****Posta-kodea:****Telefonoa:****Helbide elektronikoa:****Webgunea:**

BALDINTZA OROKORRAK

- **Bilbao Kirolak erakundearen ildo estrategikoak:**

Jarduera fisikoa eta kirol-jarduera areagotu eta sustatzea:

Herritarrek bizimodu aktiboa, osasuntsua eta ohitura osasungarrietan oinarritutakoa izan dezaten sustatzea.

Kirola egin dadin laguntzea, zenbait arloan:

- Kirol federatua.
- Eskola kirola.
- Kirol egokitua.
- Herri kirolak.
- Emakumezkoen kirola sustatzea.
- Zahartze aktiboa sustatzea.
- Belaunaldien arteko jarduerak sustatzea.

Hiria hobetzera bideratutako kirol-politikarako oinarriak finkatzea, kirola modu aktiboan kudeatuta, gizarte kohesiorako, hiriaren proiektzioarako eta beste hainbat alorretarako tresna gisa duen indarra aprobetxatuz.

- Diruz lagundutako erakundeek konpromisoa hartuko dute emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorraren alde egiteko, eta modu aktiboan sustatuko dute emakumeen parte-hartzea. Era berean, hizkuntza ez-sexista erabiltzen dela zaindu beharko dute, hala idatziz nola ahoz, eta elementu bisualak bi sexuekin errespetuzkoak direla ere zaindu beharko dute.
- Modu berean, jardueretan EAEko bi hizkuntza ofizialak erabiltzen direla zainduko dute.
- Kontuan hartuta gizarteak kirolaren esparruari esleitzen dizkion balioak, diruz lagundutako erakundeek kirola balioen eskola gisa eskaintzen lagunduko dute, hainbat jokabide eta trebetasun erabilita: talde-lana, esfortzuaren kultura, elkartasuna, arauetiko errespetua, osasunaren zaintza arduratsua, etab.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Lerro bakoitzeko eskaerak ebatzi ostean, aurrekontu-kreditua agortu ez bada, hala badagokio, beste lerro batzuetako eskaerei erantzuteko erabili ahal izango da eskuragarri dagoen zenbatekoa.

Erakundeko Presidentetzari ahalmena ematen zaio diru-laguntza hau betearazteko, ulertzeko eta garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan, eta, orobat, araudi honetan egon litezkeen hutsuneak eta akatsak zuzendu eta bete ditzan.

AZKEN XEDAPENAK.

LEHENENGOA.- Deialdi honetan berariaz aurreikusi ez den guztiari dagokionez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea -urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak egindako aldaketekin- aplikatuko da.

BIGARRENA.- Diru-laguntza honek Bizkaiko Aldizkari Ofizial laburpenean argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

HIRUGARRENA.- Oinarri hauek administrazio-bidea agortuko dute.

Onetsitako oinarrien aurka Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da, Administrazioarekiko Auzien Bilboko Epaitegian, bi hilabeteko epean, oinarri hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik zenbatzen hasita.

Bestalde, aukeran, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio Bilbao Kirolak erakundearen Zuzendaritza Kontseiluari, hilabeteko epean, oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik zenbatzen hasita.